

## HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

### 2024ko BURUILAREN 9a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita laugarren urtean, buruilaren bederatzian, arratseko zortzietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2024ko buruilaren 03an afixatua izan zen eta 2024ko buruilaren 03an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	13	
Bozkatzaileak	15	

**Hor zirenak:** ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna eta MOUSQUES Bernadette anderea. OLÇOMENDY Betti jauna

**Ahalordea(k):** COSCARAT Jean Michel jaunak ahalordea emana zakon CURUTCHARRY Antton jaunari, DUPUY Maddalen andereak, ARANGOITS Isabelle andereari

**Bilkurara ezin etorria jakinarazia zuten:** COSCARAT Jean Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea  
Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

#### Aipagaiak

- Herria FBB (Frantzia Baserrialdea Biziberritzea) eremuan sailkatu da – zerga-dispenssa erabakia JELZ eta EFZ
- Aurrekontu nagusiari buruzko aldaketa erabakia
- Gai orotarik

#### 0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2024ko uztailaren 15eko bilkuraren bilduma onartu du.

#### 1-2024-59 DELIBEROA - JABEGO ERAIKIEN GAINEKO LUR ZERGA – DISPENSZA HOTELEN FABORETAN EGOITZA OSTATU EMATEKO BAKARRIK ERABILTZEN DENEAN, EGOITZA MUBLATUAK LANDETXE GISA ALOKATZEN DIRENEAN, TURISMORAKO MUBLATU GISA SAILKATUAK DIREN EGOITZAK ALOKATZEN DIRENEAN EDO OSTATU- LOGELAK ALOKATZEN DIRENEAN – 7.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Zergen Kode Nagusiko 1383 E artikuluko xedapenak aurkeztu ditu, hauek Herriko Kontseiluari jabego eraikien gaineko lur-zerga dispensatzeko aukera ematen diote, Zergen Kode Nagusiko 44 quindecies A artikuluko II eta III.en araberako Frantzia Baserrialdeak Biziberritzea eremuetan, hotelaren egoitza ostatu emateko bakarrik erabiltzen denean, egoitza mublaturak landetxe gisa alokatzen direnean,

turismorako mublatur gisa sailkatuak diren egoitzak alokatzen direnean edo ostatu-logelak alokatzen direnean.

Zehaztu du Herriko Kontseiluaren erabakia egoitza-sail bati, batzuei edo guzietan buruzkoa izan daitekeela.

Ikusirik Zergen Kode Nagusiko 1383 E bis artikulua, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak:

**ERABAKI du** jabego eraikien gaineko lur zerga dispentsatzea

- Hotelaren egoitza ostatu emateko bakarrik erabiltzen denean
- Turismorako mublatur gisa sailkatu egoitzak alokatzen direnean
- Ostatu-logelak alokatzen direnean

**ARDURA eman dio auzapezari** erabaki hori prefeturako zerbitzuei jakinarazteko

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 13  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA:  
ABSTENTZIOAK:

## **2- 2024-60 DELIBEROA – AURREKONTU NAGUSIARI BURUZKO ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak jakinarazi du Eskolen Kutxako langileak Herriko Etxeari eskualdatu ondoren, TE64 eta kide diren herrien arteko operazioak kontatzeko molde berriak izanik, aurrekontua honela aldatu behar dela:

### **INBESTIMENDUA**

<b>GASTUAK</b>		<b>IRABAZIAK</b>	
Artikulua-operazioa	Zenbatekoa	Artikulua-operazioa	Zenbatekoa
203- 126. op - lkerketa gastuak	-3.500,00 €	275	54 387,80 €
204182- Eraikinak	5 000,00 €		
2131 –198. Op. Eraikin publikoak	-5 000,00 €		
2132 Eraikin pribatuak	54 387,80 €		
2188-175. op. Inmobilizazio orotarik	3.500,00 €		
	<b>54 387,80 €</b>		<b>54 387,80 €</b>

### **FUNTZIONAMENDUA**

<b>GASTUAK</b>		<b>IRABAZIAK</b>	
Artikulua-operazioa	Zenbatekoa	Artikulua-operazioa	Zenbatekoa
615221- Eraikin publikoak	-3.000,00 €		
6411- Langile titularrak	40 000,00 €		
6558- – Baitezpadako beste zergak	3.000,00 €		
657361- Lotua den elkargoa	-40 000,00 €		

2024ko BURUIAREN 9ko bilduma

	0,00 €		
<b>OROTARA</b>	<b>54 387,80 €</b>		<b>54 387,80 €</b>

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

**ERABAKI du** aurrekontua gainean zehaztu bezala aldatzea

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

---

**AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:**

- Apezetxeko apartamendu bat Haritschelhar jaunak okupatzeko hitzarmenaren izenpetzea 2024/07/30ean
- Bestetako ferietako kokalekuen prezioak finkatzea 2024/08/04an

**GAI OROTARIK**

/

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre *Betti* jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, OLÇOMENDY Betti jauna

Bilkuran hartu deliberoak 59tik 60ra zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>